

Oñatiko historia ezagutzeko hiru antzerki labur

Olaitturri kultur elkarteak hiru antzezlan taularatuko ditu irailaren 24an, kokaleku ezberdinetan, kilometroen jaiarekin bat eginez.



*Zumeltzegi dorreaken aurrealdean
12:00etan
13:00etan
eta
15:30etan*

1542. urtea: Gebaratarrak, konderriko jaunak

Oñatiri buruzko lehen albiste idatzia 1149. urtekoa da, eta jadanik gebaratar kondeen leinua ageri zaigu, herriko lur eta etxalde gehienen jabetzarekin.

Feudalismo garai osoan iraun zuen konderriak. Antzezlan honetan, gure herriko garairik oparoenetakoa islatzen saiatu gara, 1542an kokatzen dena. Amerikarekin sustatu zen merkataritzak itsasontzien premia ekarri zuen, eta, ondorioz, herriko olak ekoitzitako iltze eta burdinazko industriarena.

Gorteari begira bizi ziren gebaratarrez gain, ganboatarren eta oinaztarren leinuak zeuden. Ganboatarrek kanpokoekin harremanak sendotzea nahi zuten, interes ekonomikoak defendatzeko, eta oinaztarrek, berriz, bertoko legeak babestearen aldekoak ziren.

Azkenik, laugarren bizilagunen multzoa kondepekoek osatzen zuten. Urte asko eman zuten borrokan, kondeen eskumenak iraganeko garai feudaletakoak zirelakoan, eta hitzarmen bat sinatzea lortu zuten 1542an, garai berrietarara egokitzeko baliatu zutena.



*Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan
12:00etan
13:00etan
eta
15:30etan*

1760: Unibertsitateko amodiozko istorioa epaitu zenekeoa

Euskal Herriko lehen unibertsitatea Sancti Spiritus da, 1545ean Rodrigo Mercado Zuazola apezpikuaren ekimenez eraikia. Lau aldundien babes ekonomikoa izan bazuen ere, ohiko gorabeherak jasan zituen mendeetan zehar. Gerra karlistekin galdu genituen eskumenez eraginez, 1902an Madrilek maila akademiko unibertsitarioa kendu zion.

Bertako ikasketa nagusiak zuzenbide zibila, kanonikoa eta medikuntza izan ziren.

Antzerki hau 1760an kokatzen da. Unibertsitateak bi mendetako ibilbidea du jada, eta herrian ostatu hartzen zuten berrehun ikasletik gora zeuden.

Orduko bikote gazte baten amodio istorioa ardatz hartuta, aberatsen eta herritarren arteko tirabirak ezagutzeko aukera izango dugu, eta baita garai hartako irakasle zein ikasleen bizimodua, eta ikasleen eta herriko gazteen arteko harremanak ere.



*Lazarraga jauregiko lorategian
12:00etan
13:00etan
eta
15:30etan*

1845. urtea: Gipuzkoan anexionatu zenekoa

Gebaratarren menpe hainbat mendetan egondako konderria da Oñati. Nahiz eta urteroko juntetara gonbidatu gisa joan, ez zuen inongo probintzian parte hartu izan 1845. urtean Gipuzkoara anexionatu zen arte.

Baina ez zen egun bakar batean hartutako erabakia izan, hamarkada askotako gorabeheren amaiera baizik.

Azpimarratzekoa da Oñatik Arabarako probintziarekin Gipuzkoarekin adina muga duela, Arantzazura igotzerakoan garbi ikusten denez, eta Nafarroa ere Aizkorritik gertu dugula. Bestalde, gure euskarazko hizkerak bizkaitar kutsu nabarmena duela gaineratu behar da.

Antzerki honetan, oñatiarrek azaldutako arrazoiak ezagutzeko ditugu, baita Gipuzkoarekin bat egiteko adostutako hiru baldintza nagusiak ere. Auzotarren zein kaletarren ordezkariak beraien iritziak eman zituzten udalak antolatutako batzarretan, eta sarritan eztabaida sutsuak izan ziren Gipuzkoan sartzeko erabakia hartu aurretik.

Irailaren 29an Santa Ana aretoan taularatuko dituzte hiru antzezlanak, 19:30etan